

2. Balorezko proposamena

Gizarteak benetan behar duena eskeintzea da gure helburua, izan ere, gizartearen ongizatea da gure jomuga nabarmenena. Herritarrak lasai, seguru, konfiantzaz ikusi nahi ditugu gure kaleetan. Hortxe jardungo dugu gure babesik handiena ematen. Gertu izango gaituzte beti. Lagunduta sentiarazi nahi ditugu. Baina ez gara segurtasun enpresa arrunta. Izan ere, gure zerbitzua modako diseinu erakargarriak dituzten bitxiak eskaintzean datza: eskumuturrekoak, belarritakoak, lepokoak, erlojuak... Elegantzia, kalitatea eta modako diseinuak dira gure bitxien bereizgarriak. Gainera, pertsonalizatutako bitxiak ere eskeiniko ditugu, bezero guztien gustu interesetara moldatzeko asmoz. Eta nola ez, segurtasun sistema, hau da, laguntza eskatzeko botoia, ezkutuan joango da, diskrezioa ere gure baloreetako bat da eta.

Segurtasun botoia sakatzean, bitxiak duen gps-a aktibatzen da, eta honek duen sistema baten bitartez ubikazio gertueneko udaltzaingoari bidaltzen dio laguntza mezua. Ondoren, udaltzaingoak aktibatuko du laguntza protokoloa, biktimari behar duen zerbitzu publikoa eskainiz.

Ez zara kezkatu behar ea jarraitua izango zaren edo ez. Botoia sakatzen duzunean bakarrik aktibatzen da gps-a eta udaltzaingoari agertuko zaio laguntza behar duzula. Beraz, gure eskuetan zure integritatea salbu egongo da.

Gure produktuaren abantailak hauek dira:

- Segurtasun sentrazioa izango du bezeroak.
- Produktua eramatea eroso da.
- Bezeroari beldurrak gainditzeko laguntzen dio.
- Inor ez da konturatuko bitxiak GPS bat integratuta daramala.

- Dena emango dugu bezeroak babestuta egoteko.
- Azkeneko teknologia erabiltzen dugu.

Gizartearen babesa eta segurtasuna direnez gure erronkak, bitxiez gain, autodefentsa kurtsoak antolatuko ditugu. Gasteizko gimnasio ezberdinetan horrelako kurtsoak eskeintzen dituzten pertsonen esku egongo da formakuntza, baina gure ardura izango da kurtso hauen eskaintzari dagokion kudeaketa guztia. Horretaz, gain, hiriko profesional ospetsuen eskutan, beldurrari aurre egiteko terapia kurtsoak eskeiniko ditugu.